

XVIII. SANTAMASETAKO XAKE LEHIAKETA

Arrasate, 2006.eko abenduaren 23a.

Arrasateko San Andres Xake Elkartek antolatuta, abenduaren 23an goizeko 10etatik aurrera Arrasateko Centro Extremeñoan jokatu zen taldekako xake azkar lehiaketa.

Bizkaia, Gipuzkoa eta Cantabriatik etorritako hamar taldek parte artu zuten, eta talde guztien arteko liga bukatu ondoren lehen bost postuetan sailkatutakoek lehen postuaren bila azken fasea jokatu zuten. Lehen fasean Gros Xake Taldea izan zen jaun eta jabe, 34 puntu lortu bait zituen, bi puntu bakarrik galdu zituzten lehen fase osoan. Azken faserako sailkatu ziren Grosekin batera Arrasate A, Easo talde donostiarra, Zaldi Baltza talde elorriarra eta Castro talde kantabriarra. Boskarren postua jokoan zutela euren arteko azken fasea jokatu zuten gainontzeko taldeek ere.

Azken fasean Gros Xake Taldeak garaitu zuen, bigarren Arrasate A, hirugaren Easo eta laugarren Zaldi Baltza Elorrioko Xake Taldea sailkatu zen.

Sailkapena

1. GROS	Donostia
2. Arrasate A	Arrasate
3. Easo	Donostia
4. Zaldi Baltza	Elorrio - Bizkaia
5. C.C.Castreño	Castro Urdiales - Cantabria
6. Getxo	Bizkaia
7. Ibarra-Tolosa	Gipuzkoa
8. Zubi-Ondo	Elgoibar - Gipuzkoa
9. Arrasate B	Gipuzkoa
10. Alfil	Beasain - Gipuzkoa